

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

230/2025 Foru Agindua, apirilaren 16koa. Behin betiko onestea Gaubeako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) 1. aldaketa, espazio libre gisa kalifikatutako lurzoruetan haur jolasak estali ahal izateko

2024ko maiatzaren 30ean, Gaubeako Udalak erabaki zuen hasierako onespena ematea Gaubeako HAPOren lehenengo aldaketa puntualari, eta 45 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, iragarkiak jarri ziren 2024ko ekainaren 26ko ALHAOn (71. zk.) eta "El Correo" egunkarian 2024ko ekainaren 26an. Era berean, erabaki zuen udalerriko administrazio batzarrei erabakiaren berri ematea.

Jendaurrean jartzeko epean ez zen alegaziorik aurkeztu. Udalak behin-behinean onetsi zuen espedientea 2024ko urriaren 2an, eta ondoren Arabako Foru Aldundiari bidali zion, behin betiko onets zezan.

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2023ko urriaren 27an jakinarazi zuen aipatutako aldaketa puntualak ez duela bete ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen eranskinen arabera.

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko 2025eko otsailaren 25eko sarrera datarekin, Gaubeako Udalak espedientea igorri zuen, behin betiko onets dadin.

Aurrekari horiei honako oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

Lehenengoa. HAPOren lehenengo aldaketaren xedea da espazio librearen erabiltzeko oinarritzko zehaztapenei buruzko araudi orokorraren 26.3 artikulua aldatzea. Espazio librearen erabilera baldintzetan indarrean dagoen araudiak eraikin bateragarrien artean ezartzen ditu estali gabeko kirol instalazioak eta antzekoak, hala nola pistak, jolas kantxak, haurren jolas eremuak eta gimnastika elementuak, espazio libre osoaren ehuneko 15etik beherako azalera okupatuta, eta ezartzen du instalazio estaliak debekatuta daudela.

Aipatutako 26.3 artikulua, espazio librearen erabilerarako oinarritzko zehaztapenei buruzkoa, aldatu egin da eraikin eta eraikuntza bateragarrien apartatuan, debeku hori kentzeko, eta honako hau dioen azken zatia kendu da: Instalazio estaliak debekatuta daude. Halaber, testu hau gehitzen da:

Hiri lurzoruak kokatuta dauden eta ingurumen babesen bat duten eremuetan sartuta ez dauden espazio librearen kasuan, instalazio horiek espazio librearen azaleraren ehuneko 30 okupatu ahal izango dute, eta estalkia eduki ahal izango dute, betiere honako baldintza hauek betetzen baditu:

- Lau aldeetako bik gutxienez (edo perimetroaren ehuneko 50ek) erabat irekiak izan beharko dute.
- Lurzatiaren mugetaraino 3 metroko distantzia izan beharko da, ez bada jabe mugakidearekin hura murrizteko idatzizko akordioa egiten dela.
- Gehieneko altuera inguruko antolamendu xehatuko eraikuntza tipologiarena izango da.
- Baldintza bolumetrikoak eta estetikoak udal zerbitzu teknikoek kasu zehatz bakoitzerako ezartzen dituzten irizpideetara egokitu beharko dira.

Bigarrena. Dokumentu teknikoak aldaketa justifikatzen du klima baldintzak argudiatuz, euria egiten duen egunetan erabili ahal izateko haur jokoetako edo antzekoetako kirol instalazioak partzialki edo osorik estaltzeko aukera izatea ahalbidetzen dutenak. Badirudi indarrean dagoen araudian instalazio estaliak debekatzea espazio librearen kontzeptuarekin kontraesanean egon daitezkeen instalazio itxiak saihestera bideratuta dagoela. Ildo horretan, aldaketak mota horretako instalazioak estaltzeko aukera ematen du, baina gutxienez 4 alde irekietatik 2 mantenduko dira, espazio libreetatik kanpoko elementu izan ez daitezkeen. Dokumentu teknikoak udalbatzaren borondatea jasotzen du, eta baldintzatu egiten du aipatutako instalazioak hiri lurzoruan kokatutako espazio libreetan ehuneko 30era arte estaltzeko aukera, betiere ingurumen babesen bat ez badute.

Hirugarrena. Agiria aztertu ondoren, uste da behar bezala justifikatu direla egin nahi den aldaketaren komenigarritasuna eta egokitasuna.

Ondorioz, nire eskumenekoak diren ahalmenez baliatuz, Arabako Foru Aldundiko 2023-2027 legegintzaldirako sailak zehazten dituen Ahaldu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen urtarilaren 30eko Foru Gobernuaren Kontseiluaren 1/2024 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea Gaubeako hiri antolamendurako plan orokorraren 1. aldaketa, espazio libre gisa kalifikatutako lurzoruetan haur jolasak estali ahal izateko.

Bigarrena. Aldaketa Arabako Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea hirigintzako araudiarekin batera.

Laugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 16a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA

Gaubeako hiri antolamendurako plan orokorraren 1. aldaketaren espedientearen behin betiko onespena, espazio libre gisa kalifikatutako lurzoruetan haur jolasak estali ahal izateko, Arabako hirigintza plangintzaren administrazio erregistroan inskribatu da 2025eko apirilaren 22an, 2025/14 erregistro zenbakiarekin.



ARAUDIA

ESPAZIO LIBREARI BURUZKO (P) 26. ARTIKULUAREN 3. PUNTUAREN IDAZKERA BERRIA

Araudi Orokorraren 26. artikulua.

26.3- Espazio librea erabiltzeko oinarrizko zehaztapenak:

a) Erabilera honi atxikitako lurzorua, lurgainean zein lurpean, jabari eta erabilera publiko edo pribatuko lurzoruaren berezko izaera du, duen xedearen arabera.

b) Espazio libreen erabilera oinarrizko zerbitzu erabilera da, eta horregatik, gainerako hirigintza erabileren eremu guztietan baimentzen da, oro har.

c) Erabiltzeko baldintzak:

- Espazio libreek osasungarritasun, mantentze eta apaindura baldintza egokiak izan behar dituzte, egoteko, jolasteko eta paseatzeko espazioak diren aldetik.

- Lorategiz hornituko dira edo urbanizatu egingo dira, haien izaeraren eta esleitutako xede funtzionalaren arabera.

– 25 urtetik gorako zuhaitz espezieak babestuta daude, eta honako hauek bete behar dira:

- Oro har, debekatuta dago zuhaitz horiek moztea edo birlandatzea.
- Kontserbazio egoera pertsonentzat edo ondasunentzat arriskutsua bada soilik kendu ahal izango dira. Teknikari eskudunak txostena egin beharko du elementu naturalaren kontserbazio egoera fitosanitarioari eta haren ondoriozko ezegonkortasunari buruz.
- Obrek zuhaitzen bati eragiten badiote ezinbestean, birlandatu egin beharko da. Arrazoi teknikoak direla eta, birlandatzea ezinezkoa bada, eragindako alea mozteko baimena eman ahal izango da, beste edozein aukera bideraezina dela egiaztatzen duen espedientea eginez gero.
- Zuhaitzak moztea beste aukerarik ez badago, espezie bereko ale heldu bat landatu beharko da kendutako zuhaitzaren urte bakoitzeko.

- Egoteko, paseatzeko eta atseden hartzeko eremu gogorak, bideak, ibilbideak, eskailerak, parterreak, euste hormatxoak, lakuak, iturriak eta antzekoak jarri ahal izango dira, bai eta hiri altzariak eta beharrezko seinaleak ere.

- Lurpean azpiegiturak, hiri zerbitzuak eta instalazio lagungarriak instala daitezke.

- Eraikin eta eraikuntza bateragarriak:

– Oro har, espazio libreerako zerbitzueterako eraikinak baimentzen dira, besteak beste, aisialdirako, jolasteko eta herritarren informaziorako jarduera osagarrietarakoak, bai eta lorezaintzako mantentze lanetarakoak (makineria, lanabesak eta antzekoak gordetzekoak) eta erabiltzaileei zerbitzuak eta laguntza ematekoak ere (komun publikoak, etab.). Baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Ezin izango dute espazio libre osoaren ehuneko 3ko azalera baino handiagoa okupatu.
- Gehieneko garaiera 3 metro izango da.



▪ Desmuntagarriak, mugikorak eta lekuz aldagarriak izan beharko dira, eta ezin izango da inolako zimendurik egin, ezartzeko gutxieneko apeoak izan ezik.

– Aurreko puntuan adierazitako baldintzak betetzen dituzten kioskoak jarri ahaliko dira, edariak, jatekoa, loreak, egunkariak eta abar saltzeko.

– Estali gabeko kirol instalazioak eta antzekoak ere baimenduta daude, hala nola pistak, jolas kantxak, haurren jolas eremuak eta gimnastika elementuak, baldin eta espazio libre osoaren ehuneko 15etik beherako azalera okupatzen badute. Hiri lurzoruan dauden eta ingurumen babesen bat duten eremuetan ez dauden espazio libreei dagokienez, instalazio horiek espazio librearen azaleraren ehuneko 30 okupatu ahal izango dute, eta estalkia eduki ahal izango dute, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

▪ Lau aldeetako bik gutxienez (edo perimetroaren ehuneko 50ek) erabat irekiak izan beharko dute.

▪ Lurzatiaren mugetaraino 3 metroko distantzia izan beharko da, ez bada jabe mugakidearekin hura murrizteko idatzizko akordioa egiten dela.

▪ Gehieneko altuera inguruko antolamendu xehatuko eraikuntza tipologiarena izango da.

▪ Baldintza bolumentrikoak eta estetikoak udal zerbitzu teknikoek kasu zehatz bakoitzerako ezartzen dituzten irizpideetara egokitu beharko dira.

– Sestratik gorako eraikin apaingarriak, pergolak, agertokiak, instalazioak eta antzekoak egitea ere baimentzen da.

– Espazio libre publikoen zorupea lurpeko aparkalekua izateko erabili ahal izango da, aldeztu aurretik desafektazioa eginda. Nolanahi ere, lurpea erabiltzeak ez du ekarriko plan orokor honetan udalerrirako ezarritako gutxieneko espazio libreen zuzkidura orokorra galtzea.

• Erabilera pribatiborako baimendutako instalazioek edo eraikinek aldi baterako administrazio emakidaren araubidea izango dute, oro har, eta lurzorua udalaren jabetzakoa izaten jarraituko du, nolanahi ere. Ondore horietarako, nahitaezko lizentzia eta baimenetan, titularrak edota emakidadunak adierazi beharko du haien doako eta nahitaezko eskualdaketa egingo duela emakida iraungitzen den unean, kargarik eta zergarik gabe eta behar bezala inskribatuta.